

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 25a / 514. zenbakia

Hamaika gol

Gure Txokoari 7-0
eta Hondarribiari 0-4
irabazi ondoren,
Aloñaren aurka
jokatuko du Bergarak
domekan Agorrosinen

AHT: ANGIOZARKO TRAZATUA ALDATU EGIN DUTE/5 • MUSIKA: JULIA LEON, BIHAR, UDALETXEAN/12

Ikus eta egiazta itzazu Mapfrenen prezioak!

SIETE 7

POLIZA

FORD FOCUS 1.8 TDCI GHIA (115 ZP)	427,01 €
AUDI A4 TDI AMBITION	465,97 €
OPEL CORSA 1.7 DI SRI	384,35 €
RENAULT KANGOO 1.5 DCI EXPRESSION	450,77 €
RENAULT SCENIC 1.9 DTI ALIZE	488,44 €
BMW 318 TI COMPACT	505,29 €
CITROEN XSARA PICASSO 1.6	433,68 €
CITROEN BERLINGO 1.4 MULTIVOLUMEN	414,59 €

LÍDER

POLIZA*

	746,97 €	902,50 €
	1.097,10 €	1.435,90 €
	570,02 €	695,27 €
	728,57 €	857,93 €
	954,15 €	1.193,70 €
	962,27 €	1.196,29 €
	780,19 €	952,58 €
	617,32 €	757,08 €

TODO RIESGO 100

POLIZA

ADIERAZITAKO KOPURUAK BEZERO HONI DAGOZKIO: 31 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO GIDABAIMENAREKIN ETA %35EKO BONUSAREKIN. BESTE BONUS BATZUEN BERRI IZATEKO, GALDE EGIGUZU.
*ARRISKU OROKO ASEGURUA FRANKIZIAREKIN.



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Ezerk ez dizu ihes egingo.

GOITBko albistegiak arratsaldean:

14:30, 15:30.

Aurkezlea: Gorka Etxabe.


GOITBko albistegiak gauean:

20:00, 21:00, 22:00, 23:00.

Aurkezlea: Maider Osa.

Goitb
Goienz Telebista


Ikusiko
duzu!




ATREBENTZIAEZPADA/ Herrixan bidegorri biharrik somatzen dozu? Erabiliko ziñuke?



ANA PASCUAL
34 urte



JOSE MIGUEL FERNÁNDEZ
24 urte



SANTI IÑARRA
48 urte



PALOMA CARRILLO
22 urte



ANTONIO RETES
40 urte



MIRIAM MURUGARREN
21 urte

Ez litzake gaizki egongo bideborriza egotia, bizikletan ibiltteko zaletasun haundixa dago-eta. Nik neuk ez dakit askorik erabiliko neuken; pasiatzeko, batzuetan.

Bai, somatzen dot. Egongo balitz erabiliko neuke, bai bizikletan ibiltteko baita pasiatzeko be. Osintxura bidian bidegorriza egittia ondo egongo litzake, neure ustez.

Bizikletan ibiltten naiz, eta bidegorrixan, neure ustez, aspergarria izango litzake. Errepidian ibilttia gustatzen jat. Egon ezkerro, ez neuke erabiliko; herri barruan oiñez ibiltten naiz.

Ondo egongo litzake bidegorrixak jartzia. Zaletasun haundixa dago bizikletan ibiltteko, eta trafiko haundixa dagoenez, nahiko arriskutsua da. Bizikletan ibiltteko ondo egongo lirake.

Bizikletan ibiltteko edo pasiatzeko ondo egongo litzake, batez be, trafiko haundixa dagolako. Dana dala, ez dakit toki nahikua dagon bidegorrixak egitteko; herrixan, behintzat, ez.

Biharra dagola uste dot, behintzat, gaur egunian pasiatzeko erabiltten dien gunietan, trenbide zaharrian, esaterako. Ondo egongo litzake bai bizikletan ibiltteko bai oiñez be.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK DENBORA PASATZEKO MODU ASKO DAGO Bestela ere Errotalde parkea ez dago oso txukun, baina, gainera, dagoena zaindu beharrean apurtu egiten badugu, bada, are okerrago. Halaxe ke-xatu zaigu irakurle bat aste honetan. Duela hilabete eskas, zakarrontziak apurtu zituzten, eta joan den astean, irudian agertzen den hormaren gaineko harriak lurreen azaldu ziren. /M.B.

ETA BARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLAK /10

KULTURA /12

Kirolgune berria

Iñaki Ugarteburu kirol teknikariak esan du kirolgune berria eraikitzeko lanak udaberrian hasiko dituztela.

Bergara-Aloña, domekan

Bergara eta Aloña Mendi futbol taldeen arteko derbia izango da domekan, Agorrosinen, 16:00etan.

Argazki Rallya, domekan

Pol-Pol argazki taldeak antolatuta, Argazki Rallya jokatu da domekan, 08:30ean.

ASTEKODATUA

100

ZABALOTEGIN BAZKALTZEKO ELKARTUKO DIREN LAGUNAK

San Joxepe erretiratuen elkar-teak amaiera emango dio bihar, zapatua, Kultur Hamabostaldia-ri. Hamabostaldia ixteko bazkaria antolatu dute, eta ehundik gora lagun elkartuko dira han.

BESTEKE SANA

“ Nafarroako Gobernua eginahala egiten ari da euskarari orokorrean eta Ikastolei bereziki arnasa guztia kentzeko. Tuterako Argia ikastola bezala beste zenbait tokitakoak ere egoera berean daude, hots, legez kanpokoak izaten jarraitzen dute. Erdipurdizko legalizazioak sortzen dituen arazoak ikaragarriak dira. (...) Gaitz honen iturburua 1986ko Vasuencearen legea indarrean jartzean datza. “Vasofono”ak ez diren lurraldeetan ikastolak ez dira legezkoak. Eta une honetan oztopoak areagotzen ari dira. Nafarroako Gobernuak, Sanz jauna buru delarik, ez du amore eman nahi eta euskara zeharo desagertu arte eginahalak egingo dituzte trabak jartzeko. Ezinbestekoa da Ikastolak legezztatzea.

ANDRES OSA “SAKONA” / Kazetaria
'Deia' /02-10-21

BERAIEK DIÑOE/ Maite Aristegi



Gizartea haustea, noren borondatea?

Gogoratzen naiz zelan, etxean telebista izatera berandu iritsi gineno akordatu eragin izan behar izaten ziguten hasieran, han ikusten genuen guztia ez zela pelikula edo asmatutakoa. Egiak ere bazirela bertan. Nekez pentsatuko genuen orduan, handik gutxira, hedabideetan esandako guztiak dotrina berria bailitzan sinestuko genituela, esanaren puruan gezurrak ere egi bihurtuz, azken batean, gezurrean oinarritutako gizarte batean edo gaurko hitzetan, “gizarte birtual” batean bizitzera ailegatuko ginela. Eta honen eragina bizimodu-ko arlo guztietan nabaritzen bada ere, egunotan dexente burua berotzen ari zaidan gai batez jardungo dut. Hainbeste sufrikario sortzen ari den euskal gatazka amaigabea episodio berriak eta gero eta erasokorragoak bizitzen ari da azken aldian.

Hain tristea ez balitz, ondo ordaindutako epaile bat gionista txar sartuta, gero eta

abentura sinesgaitzagoz osatutako Serie B horretarikoa bat eskaintzen ari zaigula esango genuke. Eta gero eta gehiagotan gizarte hausturaz ohartarazten digute, konponbiderik nahi ez dutenen irudiko demokratikoki Herriari hitza emateko edozein proposamen aipatu orduko sakontzen den “fraktura sozialaz”. Hemen bi komunitate baleude bezala, bat zapaltzailea, abertzalea eta bestea zapaldua, abertzale ez dena. Eta azterketa sakonagotan sartu barik, geure inguruetara begiratu bes-

terik ez dago (kalean, eskolan, tabernan, elizan...) hori baino gezur borobilagorik ez dagoela konturatzeko. Eta jakina, ulertzekoa astean lagun batek izandako irteera: etxeko atarian etxekonarekin topo egin eta zera galdetu dio: Dime la verdad, tú estás a gusto aquí? Yo, claro, y mi familia también. Bueno, pues entonces dílo, eh, dílo. Egiaren aliatuak bilatzea de-non lana izango da. Zubiak egin, ez apurtu.

“Euskal gatazka amaigabea episodio berriak eta gero eta erasokorragoak bizitzen ari da azken aldian”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 25
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63

ZAPATUA, 26
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15

DOMEKA, 27
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15

ASTELEHENA, 28
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

MARTITZENA, 29
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

EGUAZTENA, 30
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05

EGUENA, 31
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 76 53 40
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emalleak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak..... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kirolegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegaraieta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00.
Sierbak Lanegunak: 19:15. Zapatuak: 19:00. Domekak: 11:30, 13:00.	Angiozar Domekak: 11:30.
Osintxu Domekak: 12:30. Zapatuak: 19:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 9:00. Zapatuak: 11:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Elosu Domekak: 10:30.	Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Ubera Domekak: 10:30.	Uzarraga Domekak: 10:00.
San Juan Domekak: 11:00.	
Elorregi Domekak: 10:30.	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1951N JAIOTAKOAK
1951n jaiotakoaren afaria azaroaren 9an Azpeitxi jaiatxean. Izen ematea (30 euro) Euskadiko Kutxan.

1933AN JAIOTAKOAK
1933an jaiotakoaren bazkaria azaroaren 24an Torrekua jaiatxean, 14:30ean. Aurretik meza izango da Sierbetan, 13:00etan. Izen ematea (6 euroko depositoa) Torrekua jaiatxean edo Intxorta tabernan.

ZERAMIKA IKASTAROA
Zeramikaren hastapenen gaineko ikastaroa izango da Zabalotegi dorrearen baxuetan. Astean lau orduko eskolak izango dira, astelehenetan eta eguaztenetan. Argibideak, 943 76 19 17 telefonoan.

ESKULAN IKASTAROK ARDATZAN ETA IGARTZAN
Egur gainean egindako lanen eta eskularen ikastaroa izango da Ardatza dendan, martitzenetan eta eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara. Izenematea eta argibideak, 943 76 35 99 zenbakian. Bestetik, ehoziri lan, bainika eta gurutzepuntu eskolak emango dituzte Igartzan, eguaztenetan, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Izenematea Igartzan bertan, eguaztenetan.

JARDUNEN AGENDA

JARDUNEN BERTSO ESKOLA ABIAN
Jardun euskara elkarteak jakitera eman duenez, helduendako bertso eskola abian jarriko da datorren eguaztenean, urriak 30, Arrizuriagako lekalean. Eskolak 20:00etan izango dira, eguazteneko. Argibideak Jardunen edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 telefono zenbakietan.

URBANOEN ORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaiatxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Imanol Sorondorekin ermitei buruz berbetan

Urtetan Santa Marinaran abade jardundako Imanol Sorondok, Bergarako ermiten inguruko artikuluko-sortaren egileak, zera adierazi zigun 1992ko urrian: "Gipuzkoan ez dago Bergarako beste ermita izan duen herririk, eta herri bateko ermitei buruzko horrela-ko ikerketarik ez da egin".



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Diarra"



Deiadarra.
-Baten baten diarra entzun da.
-Polizian kontrako diarrak eittue manifestaziñuan.

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 19 **6 °C**

MAXIMOA
Domeka, 20 **24 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **13,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	21 °C	15 °C	4 l/m²
Eguena, 17	12 °C	11 °C	0,8 l/m²
Egubakoitza, 18	19 °C	6 °C	- l/m²
Zapatua, 19	22 °C	6 °C	- l/m²
Domeka, 20	24 °C	-9 °C	- l/m²
Astelehena, 21	20 °C	14 °C	3 l/m²
Martitzena, 22	20 °C	15 °C	8,6 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'SEÑALES'

ZUZENDARIA: M. NIGHT SHYAMALAN. AKTO-
REAK: MEL GIBSON, JOAQUIN PHOENIX.

HARIA. Aita alargun bat bi seme-ekin eta anaiarekin bizi da Pennsylvaniako landetxe baten. Lurrean marraztutako zirkulu erraldoi misterioitsuak agertuko dira goiz baten.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'DEMASIADO AMOR'

ZUZENDARIA: ERNESTO RIMOCH. AKTORE-
AK: KARINA GIDI, ARI TELCH, ANA KARINA GUEVARA.

HARIA. Beatriz eta Laura Espainiara joatea amets duten bi ahizpa mexikar dira. Azkenean, Laura-k bakarrik egin ahal izango du bidaiaria eta Beatriz-ek dirua aurrezten jarraituko du gizonekin dauzkan harremanen bitartez. Hala ere, benetako amodioa ezagutzeko aukera izango du.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, urriaren 31n, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

AZPIEGITURAK/ Behin betiko trazatua aurreikusitakoa baino beherago egingo dute, eta, horren ondorioz, Eduegi baserri gainera pasatuko da

AHTren behin betiko trazatua kaleratu dute, eta Angiozarren laginak egiten hasi dira

MONIKA BELASTEGI

Behin betiko Trenbide Sarearen Lurraldeko Sektore Plana kaleratu berri du Jaurilaritzak. Abiadura Handiko Trenak EAEn barrena izango duen behin betiko trazatua jasotzen du planak. Angiozarko bailaran aurreikusitakoa baino beherago joango da trazatua.

Behin betiko planak aldaketa esanguratsua du behin-behinekoarekin alderatuz, eta oso nabarmena da Angiozarko bailarari dagokionez: trazatua jaitsi egin dute erreka alderantz, behin-behineko planean Irutontorreta mendiarren magaletik zihon trazatua; eta, horren ondorioz, Eduegi baserriaren gainera igaroko da Abiadura Handiko Trena.

Trazatua jaisteko arrazoia izan da Aramaioko eta Arrasateko lurretan dagoen Lezetxiki kobazuloa. Badirudi behin-behineko trazatua kobazulotik hurbilegi igarotzen zela, eta leizea ez kaltetzeko trazatua jaistea erabaki du Jaurilaritzak.

Trazatua jaisteak Eduegi baserriaren eragin nabarmena du; izan ere, baserriaren gain-gainera igaroko da trena trazatu berriarekin. Mila Elortza Angiozarko auzo-alkateak esan duenez, oraindik "ez dakigu zein irtenbide emango dioten baserriari, ezta irtenbiderik emango dioten ere. Baserriaren gainera zubibide bat egingo dutela ere aipatu digute inoiz proiektuaren arduradunek".

Bestetik, kontuan hartu behar da, Elortzaren esanetan, Jaurilaritzak Eduegi monumentu kalifikatua izateko espedienteari hasiera ere emana diola. Eta horrek "baserria eta hura ingu-



MONIKA BELASTEGI

Aramaiotik tunelean datorrela, Frantxina Berri baseritik gertu (irudiaren ezker aldean) aterako da tuneletik AHT.

ratzen duen eremu handi bat babestu egiten dituela".

BI LINEAREN ARTEKO BANAKETA

Abiadura Handiko Trenak bi linea izango ditu, jakinekoko den

bezala: bata, Gasteiz-Irun linea izango da, eta, bestea, Bilboko.

Bi linea horien trazatuak Y-forma du: enbor nagusia du Irun eta Angiozar artekoa, eta Angiozarko bailaran bitan banatzen da;

Gasteiz aldera, batetik, eta Bilbo aldera, bestetik. Angiozarren izango da, hortaz, bi noranzkoen arteko banaketa.

Sektore Planak jasotzen duenez, Angiozarrera Aramaiotik

Behin betiko trazatua lehengoa baino beherago egingo dute, errekatik gertu

Trazatuaren aldetarekin Eduegi baserri gainera igaroko da AHT

Lurzorua ezaugarriak aztertze laginak egiten hasi dira dagoeneko

helduko da AHT, tunel barruan, eta Angiozarrera iristean tuneletik irtengo da, gutxi gorabehera Frantxina Berri baserriaren alboan. Handik -betiere, erreka-aren eskuma aldetik-, bailaran behera egingo du autobidearekin gurutzatzen den tokira arte. Han, berriro tunelean sartuko da Martoko berrira arte. Martoko berrin tuneletik irten eta zubibide baten gainera -Biltoki enpresaren gainera, gutxi gorabehera- Antzuolarako bidea segituko du.

LAGINAK EGITEN HASI DIRA

Angiozar bailarako lurzorua profila, izaera eta ezaugarriak aztertze hondeaketak egiten hasi dira aste honetan Geocontrol SA eta Inersa enpresak. AHTren ibilbidea egiteko lurra ezaugarriak jakiteko egiten ari dira laginak.

Laginak Udaleko Gobernu batzordeak emandako baimenarekin egiten ari dira Geocontrol SA eta Inersa enpresak. Baina ez laginak egingo dituzten lurra jabeekin, Mila Elortzaren esanetan: "Enpresak ez dira lurra jabeengana zuzendu baimena eskatzera, eta martitzenean, lurjabe guztiarekin batzarra izango dugu hemen, auzoan, euren eskubideen berri emateko".

BI LINEAREN ARTEKO BANAKETA

Behin betiko Trenbide Sarearen Lurraldeko Sektore Plana onartuta dagoen arren, urte amaierara arte alegazioak egiteko epea zabalik dagoela aurreratu du Elortzak. Hori horrela, "proiektuaren aurkako jarrera berretsi egingo dugu AHT Gelditu! Elkarlana taldeko". Bestalde, "Madrilen, Jaurilaritzan eta Europan ditugun auziak onartuta eta oraindik ere zabalik daude".

Torrekuako zubia, asteburuan itxita

MONIKA BELASTEGI


Torrekuako pareko zubia konpontzeko lanak direla-eta, itxita egingo da asteburu honetan ere herri-rako sarrera hori.

Izan ere, denbora luzez oso egoera kaskarrean egon eta gero, joan den asteburuan, dilatazio-junturak konpontzeko lanei ekin zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lanen lehenengo fasea amaitu zuten, eta asteburu honetan bigarren eta azken fasea egingo dute: inpermeabilizatu eta aglomeratua zabaldu. Lan horiek direla eta, Torrekuako pareko zubia

itxita egongo da bihar, zapatua, 08:00etatik aurrera, domekako 20:00ak arte.

FORU ALDUNDIAREN GOMENDIOAK

Torrekuako pareko sarrera hori itxita egongo denez, aukeran honako bide hauek erabilteza gomendatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak: alde batetik, Soralezetik datozenak San Lorentzotik edo Amillagatik sartzea herrira, eta, bestetik, Arrasatetik edo Antzuolatik datozenek ekialdeko saihesbidea har dezatela eta horren ondoren, Labegaraietik sar daitezela erdigunera.



Zapatuan itxiko dute zubia, 08:00etan, eta halaxe egongo da domekako 20:00ak arte..

MONIKA BELASTEGI



ARTXIBOA

Saihesbidea gehiago erabili eta San Antonio ibilgailuz arintzea da hobekuntzen helburuetako bat.

ERREPIDEAK/ Saihesbide berria hobetzeko 11 proposamen bidali ditu Udalak Diputaziora

Saihesbidea hobetzeko proposamenak egin dituzte

MONIKA BELASTEGI

Ekialdeko saihsbidearen gaineko hainbat hobekuntza proposatu dizkio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Proposamen horiek saihsbidearen aprobetxamendu hobe baterako eta gidarien segurtasuna bermatzeko dira, batez ere.

Badira bi astetik gora Ekialdeko saihsbidea inauguratu zutela, eta denbora tarte horretan hainbat hobekuntza egin ahal zaizkiola ikusi du Udalak. Batetik Udaltzaingoa proposatutako hobekuntzak dira, eta bestetik, Hirigintza batzordeak. Hamaika proposamen dira, eta guztiak

segurtasuna eta zirkulazio hobe bermatzeko lotuta daude. Gobernu Batzordeak onartu ditu dagoeneko proposamenak, eta Diputaziora ere bidali dituzte.

HAMAIA PROPOSAMEN

Hamaika dira Udalak Diputaziora egiten dizkio proposamenak eta ia guztiak saihsbidearen aprobetxamendu hobearekin lotuta daude, horrek herri barruko trafikoa ere gutxitu egingo lukeelako. Hori horrela, proposamenetako asko gidariari norantzak argitzeko dira: batetik, Antzuolatik Bergararako lehen irlatxoan seinale beharra ikusten du Udalak, ezker aldera Arrasate, Gasteiz eta Eibar seinalezatuz, eta eskuma aldera Bergara.

Bestetik, Zumarraga zein Antzuolara joateko San Antoniorako norantza markatzen duten seinale zahar guztiak -Ertzain etxe parekoak, Mayc-eko errotondakoa, Ozaetakoa eta Torrekua parekoa- kentzea ere eskatzen dute.

Horrez gain, Antzuola aldetik eta Eibar aldetik datozen 13 tona baino gehiagoko ibilgailuentzat ere ohar berezia jartzea eskatu dio Udalak Diputaziora. Seinale horrek herri barrurako sarrera debekatuta dutela jakinaraziko die 13 tonatik gorako ibilgailuei.

Segurtasunari dagokionez, argi falta somatu du Udalak San Antoniotik saihsbidera sartu behar diren ibilgailuentzako eta sarrera horretan abiadura murrizteko bandak ere eskatu ditu.

Soraluzera arteko trenbidea konpontzeko plana martxan da

MONIKA BELASTEGI

Sestra enpresak Soraluzera arteko trenbidea konpontzeko proiektua egin berri du Udalaren eskariz. Proiektua Diputazioak garatutako Bidegorrien Planaren barruan dago. Udalak Diputaziora bidali du eta orain Aldundiak zein punturarte finantzatu duen zain dago.

Trenbide zaharraren bideak oinezkoendako eta hainbat txirrindulariendako pasealeku bihurtu direla ikusita, Bidegorrien Planari ekin dio Diputazioak.

Planak sei ibilbidez osatutako sarea jasotzen du: guztira 310 kilometro. Helburu nagusia da mugikortasun jasagarria bultzatzea, txirrindulariei eta oinezkoiei aisi gune egokiak emanez.

Plan horren barruan dagoen ibilbideetako bat Bergara eta Soraluze artekoa da.

Planaren berri jaso ondoren, zati hori konpondu eta bidegorri bihurtzeko interesa azaldu zion Udalak Aldundiari, eta baita proiektua egiteko konpromisoa hartu ere. Hala, proiektuaren idazketa Sestra enpresari esleitu, eta dagoeneko eginda dago; bai-

ta Diputaziora bidalita ere. Orain, Aldundiak aztertu eta zenbat diruz lagunduko duen zain dago Udala.

5,3 KILOMETROKO BIDEGORRIA

Begarari dagokion trenbidearen zatiak 5,3 kilometro ditu; Tornilleria Deba ondoan hasi eta Soraluzeko mugan amaitzen da.

Proiektuak jasotzen duenez, oinezkoendako eta txirrindulariendako egokituko litzateke, egun ere horiek erabiltzen dutelako. Horretarako zorua behar den bezala jarriko lukete eta argi nahiko jarri.

LABUR

Datorren eguaztenean hasiko da Jardunek antolatutako helduen bertso-eskola

Eguaztenean, hilak 30, hasiko da Jardun euskara elkarteak antolatutako helduendako bertso-eskola. Hogeita bat lagunek eman dutena izena: hamaika lagun 13-16 urte bitartekoak dira eta gainerakoak 25etik gorakoak dira. Eskolak Arrizuriaga jauregian izango dira, eguaztenean, 20:00etatik 22:00etara, eta ekainera arteko iraupena izango dute. Haurren bertso-eskolari dagokionez, oraingoz hamabost umek eman dute izena, eta datorren astean erabakiko dute eskolak noiz eta zein ordutan izango dituzten.

Irakasleak eskarmentu handiko bi bertsolari izango dira: Ainhoa Agirreazaldegia eta Enaitz Alustiza.

Enaitz Alustizari dagokionez, Bertsolari Gazteen Arabako I. Sariketan hartuko du parte. Lehen saioa bihar izango du, Aurreraino Zerua jatetxean, 20:30ean, beste bost bertsolariarekin.

Udaltzaingoa erosteko garabi-autoa erosteko baldintzak onartu ditu Udalak

Udaltzaingoa erosteko garabi-autoa erosteko baldintzak onartu berri ditu Udalak. Lehiaketa bidez eskuratu nahi dute garabi-autoa eta dagoeneko bigarren aldia da baldintzak kaleratzen dituztela. Izan ere, uztailean egin zuten lehen lehiaketa baina inor aurkeztu ezenez, berriz kaleratu behar izan dituzte.

Garabi-auto zerbitzua datorren urte hasieran jarri nahi dute martxan, eta Udaltzaingoa kudeatuko du. Traban dauden autoak kentzeko erabiliko dute.

Gobernu batzordeak "herria pintaketez bete dutenen sentsibilitate falta" salatu du

Gobernu batzordeak erredakziora bidalitako oharraren bitartez hilaren 11n "ez dakigu zer lortu nahian herria pintaketez bete zutenen sentsibilitate falta" salatu nahi izan du. Baita jakitera eman ere, horrelako ekintzek "ez diotela mesederik egiten Udaltzari".



Txakur arriskutsuen errolda amaitzean

Datorren egunean, urriak 31, amaituko da arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak erroldatzeko eta txakurrok edukitzeko beharrezkoa den lizentzia lortzeko epea. Ondorengo aipatzen diren arrazako txakurren egoera legeztatzen Udaltzaingoa- ren bulegotik pasatu behar da: Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier, American Staffordshire Terrier, Rottweiler, Dogo Argentino, Fila Brasileiro, Tosa Inu eta Akita Inu.

ELKARRIZKETA

IÑAKI UGARTEBURU/KIROL ZERBITZUKO ARDURADUNA

“Igerileku berrien proiektuarekin zerbitzu integrala eskaini nahi zaie herritarrei”

EDU MENDIBIL

Igerileku berrien proiektua herritar askoren ahotan dagoen gaia da, igerilekuak itxi zituztenetik batez ere. Udalak ez du argibide asko eman. Iñaki Ugarteburuekin izan gara proiektuaren inguruko hainbat gauza argitzeko.


Zein fasetan dago igerileku berrien proiektua? Noiz hasiko dira lanak?

Oraindik ez dakigu lanak noiz hasiko diren. Udalak, lehiaketa bidez, Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntanyola arkitektoen proiektua aukeratu zuen eta orain proiektu hori aurrera eramateko aukerak aztertzen ari gara. Lanak adjudikatzeko daude oraindik eta zer nolako dirulaguntzak jasoko ditugun ikus-teko dago. Aurrekontua 1.700 milioi pezeta ingurukoa izango da. Epeak-eta eta finkatzeko daude, baina ziurrenik udaberri partean hasiko dira lanak. Eta, oraingoz, ezin da jakin noiz arte egongo garen igerilekurik gabe.

Igerilekuko eraikina uda ostean botatzen hasi nahi genuen baina oraindik futbol taldeek Ipinzako aldagelak erabiltzen dituzte eta Agorrosinen aldagela berriak eraiki bitartean ezin dugu eraikina bota.

Lanak hasi bitartean zer-gatik ez dira barruko igerilekuak zabalik izan?

Jaurralitzako Osasun Sailaren baimenik ez genuelako. 2000ko abenduan teiltatu zati bat jausi zenean eta beharrezko konponketak egin eta gero, Osasun



errehabilitaziorako beste bat (21x6 metro ingurukoa), biak estaliak, eta beste bat biribila, erre-kreatiboa, 23 bat metroko diametrokoa, eta estalkia jarri edo kentzeko aukera izango duena. Kirol askotariko kantxa izan ezik, denetik izango du kirolgune berriak, eta orain baino zerbitzu osatuagoa izango dute erabil-tzaileek.

Proiektu hain garrantzitsua izanda, ez da informazio falta egon Udalaren partetik gai horrekin?

Beharbada, bai. Proiektuaren berri ematea komeni zaigu, baina abuztuaren azken astean Igeri Elkartek kanpoko igerileku txikia estaltzeko proposamena egin zigan, lanek irauten duten bitartean 25 metroko igerileku hori egokitzeko, estalita eta ura behar den tenperaturan jarrita. Horrek prozesu guztia baldintzatu du informazio mailan, baina epe laburrean prentsurrekoa eman nahi dugu, proiektua behar bezala azaltzeko. Igeri Elkartekoen proposamen horri erantzun bitartean, Udalak ez du nahi izan prentsurrekorik eman.

Igeri Elkartearena irtenbide harrigarria dirudi.

Arkitekto bat dihardu azterketa egiten. Proiektu horren kostua eta Osasun sailak baimenduko lukeen ikusi nahi dugu. Barrukoak baino sakontasun gutxiagoa dauka kanpoko igerileku txikiak (1,20 m. eta 0,80 m. bitartean) baina igeri egiteko nahikoa omen da Igeri Elkartekoen ustez. Lehenbailehen irtenbidea eman nahi diogu gai horri, obra horrek ere bere denbora beharko luke-eta.

“Oraindik ez dakigu lanak noiz hasiko diren. Udaberrirako proiektua abian egotea nahi dugu”

Sailak ez zuen nahi barruko igerilekuak berriro zabalzerik. Luzapena lortu genuen, baina bagenekien aurtengo uda ostean ezinezkoa izango zela berriro zabaltea, araudira egokitzeko inbertsio handia egitea beha-

“Bagenekien uda ostean ezinezkoa izango zela barruko igerilekuak berriro zabaltea”

rrezkoa zelako. Eta inbertsio horrek ez dauka zentzurik.

Zelakoak izango dira igerileku berriak?

Igerileku berrien proiektuarekin zerbitzu integrala eskaini nahi dugu. Igerilekuez gain, hain-

“Lanak iraun bitartean kanpoko igerileku txikia estaltzeko aukera aztertzen ari gara”

bat zerbitzu eskainiko dira: gimnasioa, haurtzaindegia, squash pistak, hiri bainuetxe bat (saunak, termak, eta horrelakoak), klubendako lokalak, etab. Igerilekuei dagokienez, hiru izango dira: 25x21 metroko bat, umeendako eta

Kamiñeroen orubea eskuratzeko interesa du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Joan den astean, Kamiñeroen etxea bezala ezagutzen den eraikina botatzeko lanak hasi zituzten. Eraikina Diputazioarena da, baita bota ondoren utziko duen orubea ere. Gallastegi alkateak esan duenez, Udalak interes handia du orube horretan.

Victoriano Gallastegi alkateak adierazi duenez, “Udalak interes handia du Kamiñeroen etxea bota ondoren han geratuko den orubea eskuratzeko”. Interes hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariarekin harremanetan ari dira, “truke bidez orube

hori eskuratzeko aukera aztertzen, hain justu”. Hala eta guztiz ere, “oraingoz, harremanetan” daudela azpimarratu du, eta “trukekerik egingo den ere ez da ziurra”.

ETA UDALAK TRUKEAN DIPUTAZIOARI, ZER?

Diputazioak Udalarik Kamiñeroen orubea emango balio, trukean Udalak Diputazioari zer emango likeen ere zehaztu barik dago, Gallastegi alkatearen esanetan: “Erabakia baldintzatzen duten hainbat gai daude zintzilik. Diputazioarekin izandako lehen elkarrizketetan Ipiñarri inguruan egin zitekeen eskualdeko garraioen logistikagunea aipatu zen. Gune hori egingo balitz, Udalak

%10eko partaidetza izango luke, eta hori trukeerako erabil zitekeela ere aipatu zen. Baina horiek garai bateko kontuak dira, eta, esan bezala, ez dago ezer lotuta. Trukea egiteko, garraioen logistikagunearen proiektuak aurrera egingo duen jakin behar da lehenik. Dena dela, hori edo beste toki bat trukea daiteke”.

BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK

Udalak Kamiñeroen orubea eskuratu balu, litekeena da, Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan, “babestutako etxebizitzak egitea”. Hala eta guztiz ere, trukea oraindik egin barik dagoenez, gaineratu du ez dagoela ezertxo ere finkatuta.



Trukea egin ondoren, baliteke babestutako etxeak egitea Kamiñeroen orubean.

MONIKA BELASTEGI



JARDUNEKOAK ARRIZURIAGAN

Udalak Arrizuriaga jauregiko hainbat gela utzi dizkio Jardun euskara elkarteari, eta, hortaz, aurtengo ikasturteko jarduerak hantxe egingo dituzte. Aste bukaerako aisialdi programa, pandero eta soinu ikastaroak edo hastear dauden bertso eskolak han eskainiko dituzte. Argazkietan aste bukaeretako programan parte hartzen ari diren gaztetxoak ikus ditzakezue. Begiraleen laguntzarekin, zapatu eta domeka arratsaldeak lagunartean jolasean pasatzeko aukera daukate. Bestalde, Jardun elkarteke bulegoak Irizar jauregian egongo dira oraindik, eta, hortaz, edozein argibidetarako hara jo beharko dute herritarrek, orain arte bezala.



ARGIÑANORENAK EGITEN

Azken asteotan, Edurne Azuara aktore bergararra GOITBko *Gatza eta berakatz*a saioan ikus dezakegu, Biko Bokategiko errezetak aurkezten. Hemendik ekainera bitartean, Edurnek ogitartekoak gertatzeko 33 errezeta aurkeztuko dizkigu, eguaztenero, 13:30ean. Errezetak Fernan Kalboetxeagarenak dira. Adi, hortaz!

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

Azarotik aurrera helbide berrian:
Masterreka 13, behea

ADI!
Azaroan,
erlaxazio ikastaroa
hasiko da.
Informa zaitetz!


Samadhi
Yoga

YOGOTERAPIA ETA ERLAXAZIOA
Masterreka 13, behea
Tel. 639 235 753 / 943 76 11 38

BERGARARRAK MUNDUAN

MAITE MUJIKA

31 URTE / LONDRESEN DIHARDU LANEAN

“Bortitza baina, era berean, oso hiri aberasgarria da Londres”

EDU MENDIBIL

Bergararik irteteko gogoak zeukan Maitek, eta duela urtebete Londresera joan zen: “Beti pentsatu izan dut munduan gauza asko dagoela ikusteko, eta lanarekin eta herriko giroarekin nahiko aspertuta nengoenez, Londresera etorri nintzen. UNEDen Zuzenbidea ikasten ari naiz, eta Londresek ikasketekin jarraitzeko aukera ematen zidan, hemen UNEDeko zentro bat dago-eta, bizi naizen egoitzatik gertu, gainera”.

Hasiera gogorra egin zitzaion: “Oso hiri bortitza da Londres. Jendea bere kasa dabil, oso individualista da, eta gogor egin behar da batzuetan, bestela, zapaldu egiten zaituzte-eta. Era berean, munduko edozein tokitako jendea aurki dezakezu, eta hori oso aberasgarria da. Hemen ez dago aspertzetik. Hori bai, oso hiri garestia da Londres”.

Esan bezala, egoitza baten bizi da Maite, erdialdean, eta logelan korear, italiar eta tunisiar banarekin dago: “Ondo konpontzen gara elkarrekin, nahiz eta nork bere bizimodu egiten duen, eta egoitza bera ere ondo dago: garbia



eta merkea; izan ere, hori ez da ohikoa izaten”.

Hasieran, hotel bateko harrera gelan eta Sohoko jate-txe baten egin zuen lan, baina ia, urte amaieran, Harrod's merkataritzagune ospetsuan aurkitu zuen lana, hango txarkuterian: “Ikaragarria da

“Munduko edozein tokitako jendea aurki dezakezu hemen; ez dago aspertzetik”

Harrod's-en eskaintza, denetik dago, gauza exotikoenak ere bai: orain gutxi elefante-kume bat saldu zuten. Turista asko etortzen dira erosketak egitera, eta irailaren 11ko atentatuaren ostean amerikar turistak behar-kada igarri zen”.

Eguenetik zapatura bitartean egiten du lan, eta orain, ingeles akademian baten hasitekotan da: “Asteburuetan, berriz, lagunekin irteten naiz buelta bat ematera. Astero jende berria ezagutzeko aukera dago hemen”.

MINGAINARITIRAKA



Juanma García

KARTERUA ETA IRAKASLIA

Urtebete inguru daroia Correosen kartero lanetan, eta arratsalde eskola partikularrak ematen dittu. Azaruak akademixia zabalduko dau, lagun batekin batera, Arrizurin.

Gutunak, bidali ala jaso?
Jasotzia nahixago. Lehen, gehixago bialtzen nittuan.

Korreo elektronikua erabiltzen dozu?
Ez, bat be. Kartaruei lana emon bihar...
Oporretan postalik bialtzen dozu?
Bai.

Zure lanaren gauzarik onena?
Independentsia, gainian infor ez izatia.
Txikitan ikasle ona ziñan?
Normala.

Zein zan zure ikasgai gogokuena? Eta gorroto ziñuana?
Natur Zientziak gustatzen jaten, eta gimnasiari nahiko gorroto notsan.

Zure ikasleei ze errepikatzen jetsu?
Lan egitteko. Ez daguela tohorik.

Neskak ala mutillak die fiñaguak?
Neskak saiatuaguak die, nere ustez.

Egunkarixan irakurtzen dozun lehenengua?
Iritzi artikuluak.

Kirolik egitten dozu?
Ajedreza kirola bada, bai.

Gustoko filme bat?
El padrino-ren bigarren zatixa.

Irakurri dozun azken liburua?
Baudolino, Umberto Ecorena.

Musika talde bat?
The Doors.

Euskal Herriko txoko bat?
Bizkaiko kosta.

Loterixan 100 milloi irabazi ezkeru?
Leku lasai batera erretiratuko nitzake, eta bidaiatu egingo neuke.

Egin dozun bidaiarik onena?
Almeriara, aspaldi. Hegoaldia gustatzen jat. Eurixa ezin dot jasan.

EDU MENDIBIL

NIRE BIDAIAHURA / Jon Lasa


Mozambique / 2001eko abuztua

Lehenengo bidaia Afrikara orain dela 20 urte egin nuen, Marokora, eta *fletxazo* modukoa izan nuen Afrikarekin. Harrezkero hango 16 bat herrialde bisitatu ditut, eta dagoeneko bihotza erdi-afrikarra daukadala esaten dut askotan, afrikar sentitzen naiz.

Joan den urtean, abuztuan, Mozambiken izan ginen zortzi laguneko taldeko bat. Zimbabwen ekin genion bidaiari, eta han ondo ekipatutako kamioi bat hartu genuen errentan, txofer eta guzti. Zimbabwoko zatirik handiena erreserba naturala da eta Harare hiriburua ere ikustekoa da; ukitu europarra du hiri hark.

Mozambique, berriz, urtetan gerran izan den herrialdea da, eta denbora han geldirik dagoela esaten dute. Portugalgo kolonia izandakoa da, 1975ean independentzia lortu zuen arte.

Gerraren ondorioak oraindik nabariak dira: zubi asko minatuta daude, esaterako, eta ONUko artezilariaik lanean ikus daitezke. Horren ondorioz, barrualdea arriskutsuagoa da, eta gu, nagusiki, kostaldean egon ginen. Han ez dago hotelik, eta dendetan egiten genuen lo. Eguzkia sortzen zenetik gordetzen zen arte aprobetxatzen genuen, 05:00etatik 17:00etara. Gu joan baino lehen uholdeak izan ziren Mozambique hegoaldean, eta gorago ibili ginen. Portugaldarrek portu inportanteak zituzten XVI. mendearen inguruan eta eraikin askok historia eta arte-ondare izen dapena dute. Kolonien garaiko arrastoa nabaria da oraindik. Paisaia oso ederra da eta lurralde bolkanikoa denez, orratz forma duten mendiak daude. Sabana ere zoragarria da, eta animaliaik ikustea zaila gertatzen da Mozambiken. Oso herrialde interesgarria da. Azken egunak Malawin eman genituen. Laku handi bat eta terreno gutxi batzuk dauzkan herrialdea da, xarmagarria benetan.



“Gerraren ondorioak nabariak dira oraindik Mozambiken”

“Kostaldeak kolonien garaiko arrastoa dauka”

EDU MENDIBIL



Jon Lasak Mozambiqueko neska-mutiko batzuei ateratako argazkia.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



MIKEL LARRAÑAGA

Agorrosinen jokatuak etxeko azken partiduan Bergarak 7-0 irabazi zion Gure Txokoa taldeari.

FUTBOLA

Preferenteak bolada onari eutsi nahi dio domekan, Aloñaren aurka

Mahoneroek azken bi partidua irabazi dituzte, 11 gol eginez eta bakar bat ere jaso gabe

EDU MENDIBIL

Bergara eta Aloña Mendi futbol taldeen arteko derbia jokatu da domekan, Agorrosinen, 16:00etan. Mahoneroek gol asko sartu dituzte azken bi partiduetan, eta domekan bolada onari eutsi nahi diote.

Etxeko azken partiduan Gure Txokoari 7-0 irabazi ostean, Bergara 0-4 nagusitu zitzaion zapatuan Hondarribiari, Hondartzan. Gorka San Vicente (2 gol), Xabi Arregi eta Jokin Mendiartz izan genituen bergararren golegileak. 0-1ekoarekin epaileak Ansó

hondarribiarren atezaina kanpora bota zuen, eta Juanina Garairren jokalariek denboraldiko hiru garraipena lortu zuten uste baino errazago. Azken bi partiduetan 11 gol egin eta bakar bat ere ez du jaso Bergarak. Tolosa liderraren ondoren (18 gol), gol gehien egin dituen taldea da, Pasajekin batera. Bi taldeek 14na gol sartu dituzte. Saikapeneko 8. postuan daude bergararrak, 11 punturekin. Hortaz, domekako partidua irabaztea ezinbestekoa izango da saikapeneko goiko aldeko taldeekin bat egiteko.

Aloña Mendiri dagokionez, domekan 0-0 egin zuen Azkoa-

gainen, Elgoibarren aurka, eta 13. postuan dira oñatiarrak. Gorka Zelaiak zuzendutako taldean Unai Arana, Xabier Lete, Gotzon Urzelai, Txonan Gallastegi, Iñaki Muxika eta Ina Dobao bergararrak ari dira.

BESTE HIRU PARTIDU ASTE BUKAERAN Futbol hitzorduak osatzeko, beste hiru partidua jokatu dira aste bukaeran Ipintzan: Bergara-Urola nesken artekoa, zapatuan, 16:00etan; Bergara-Aretxabaleta bigarren mailako gazteen artekoa, zapatuan, 18:00etan; eta, azkenik, Bergara-Arrasate infantil mailakoa, domekan, 11:00etan.

Senior saskibaloit taldeak Elgoibarri irabazi zion (69-54)

E.M.

Bergara KEko senior gizonen saskibaloit taldeak garaipen batekin ekin zion ligari, aurreko zapatuan, 69-54 nagusitu zitzaion-eta Elgoibarri, Labegaraietan jokatuak partiduan.

Ramon Condek zuzendutako taldeak partiduen 3. laurdenean erabaki zuen partidua. 15-4ko partziala egin ondoren, bergararrek aldeari eutsi ahal izan zioten partidua amaieran. Ordu arte partidua orekatua izan zen, eta puntu bakar bat atzetik izan ziren elgoibartarrak 2. laurdenean amaieran. Mahoneroen entrenatzaileak jokatzeko moduan ziren jokalarit guztiak kantxaratu zituen, eta guztiek ondo baino hobeto erantzun zuten.

Bergarakoentzako Ivan Herzogek hiruko saskiratze erabakigarriak egin zituen; 24 punturekin hura izan zen partiduko onenetakoa. Bergarakoentzako gainerako saskiratzaileak hauexek izan ziren: Jorge Morais (2 puntu), Gorka Eraña (13), Ivan Alonso (2), Jesus Morais (12), Mikel Larrañaga (11), Unai Iñarra (2) eta Aitor Ugarte (3).

KADETEAK, ETXEAN


Kadete mailako bi taldeek etxean jokatuak dute bihar, zapatua. Bi partidua 12:15ean jokatu dira, kiroldegian. Lehen mailako kadeteak Atletico San Sebastian hartuko du eta bigarren mailakoak Gros Loiola izango du aurrean. Aurreko jardunaldian lehen kadeteak Urretxun galdu zuen (47-43) eta bigarrenak Arrasaten irabazi egin zuen (37-49).



ARTXIBDA

Bergarako jokalariek abantaila erabakigarria lortu zuten 3. laurdenean.

FOTOKIROLA



Zabarte eta Zafra, bikain Azkoitian

Ainhoa Zafra eta Unai Zabarte gerriko beltzik ez duten karateki zuzendutako Gipuzkoako Txapelketan izan ziren domekan, Azkoitian. Zabarte katetan lehena izan zen kadete mailan eta Zafra, kumitetan (borroketan), 3.a senior mailan. Argazkian, Josean Iñarra Shotokaneko entrenatzailearekin.

FUTBOLA

Athletic-Celta ikustera joateko irteera antolatu du Peña Athleticek

Bergarako Peña Athletic taldeak irteera antolatu du datorren azaroaren 3an, San Mamesen, Athleticek eta Celtak jokatuak duten partidua ikustera joateko. Aurtengo denboraldian Athleticzaleek egiten duten lehen irteera izango da.

Partiduen egunean 11:00etan irtengo dira, eta Deustuko jatetxe baten bazkalduko dute. Izenematea Toki-Ona ardandegian egin daiteke, 30 euroren truke. 18 urtetik beherakoek, berriz, 12 euro ordaindu beharko dituzte.

ATLETISMOA

Behobia Txikia herri lasterketa jokatu da bihar, zapatua, 10:30ean hasita

Behobia Txikia herri lasterketa jokatu da bihar, zapatua. Irteera 10:30ean egingo da Agorrosinen, eta partaideek Sorruzera joan-etorria egingo dute.


Bestalde, azaroaren 10ean jokatu den Behobia-Donostia herri lasterketarako izenematea zabalik dago Lazkano oinetako dendan, azaroaren 2ra arte. 18 urtetik beherakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzearen eta 18 urtetik gorakoek, 18 euro. Txipia itzultzen duten korrikalariak bost euro bueltatuko dizkiete.

ESKUBALOA

Gazte taldeak eta seniorrak zapatuan Labegaraietan jokatu dute

Bi eskubaloit partidua izango dira bihar, zapatua, Labegaraietako Kiroldegian. Gazte mutilen taldeak Arrasateren aurka jokatu du, 16:30etik aurrera. Jarraian, senior mutilen taldearen txanda izango da: Edu Orgazek zuzentzen duen taldeak Ereintzaren aurka neurtuko ditu indarrak, 18:15ean. Senior taldeak etxeko azken partidua galdu zuen eta beharrezkoa du bihar garaipena lortzea.

Senior nesken taldeak, berriz, Bilbon jokatu du, San Adrian taldearen aurka.



Apraiz-Iñarra seniorretako bigarren mailako bikoteak galdu egin zuen aurreko jardunaldian Urretxun.

PILÓTA

Kadete eta senior bikoteen partiduak bihar, Udal Pilotalekuan

E.M.

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketaren barne, Bergara KEko Pilota Sailak beste jardunaldi bat izango du aste bukaeran. Kadete eta senior mailetako bikoteek frontoian jokatuko dute bihar, 11:30ean.

Bihar, zapatua, hiru partidu jokatuko dira Udal Pilotalekuan. Jaialdia 11:30ean hasiko da. Lehenbizi, kadete mailako bikote bergararra Eibarko bikotearen aurka arituko da; jarraian, senior bigarren mailako bikoteak lazkaota-

ren aurka neurtuko ditu indarrak; eta, azkenik, lehen mailako senior bikoteak kantxaratuko dira: bergararrak eta arrasatearrak izango dira aurrez aurre. Jardunaldi honetan gazte bikoteak Elgoibarri bisita egingo dio eta senior banakako txapelketan ari den Edu Samaniegok Elgetan jokatuko du gaur, egubakoitza, 21:00etan, Ozkarbi elkarteko ordezkariaren aurka.

HIRU GARAIPEN AURREKO ASTEAN

Azken jardunaldian hiru garaipen lortu zituzten herriko pilotariek: Mikel Salegi eta Ibai Altu-

na gazteek 22-19 irabazi zioten Antzuolako bikoteari eta Edu Samaniego 22-8 nagusitu zitzaion Lazkaoko ordezkariari. Era berean, Ander Muguruza eta Igor Gutiérrez seniorrek Zumarragan irabazi zuten (10-22).

Bestalde, kadeteek eta bigarren mailako senior bikoteak ezin izan zuten garaipenik eskuratu. Kadete mailan Markel eta Oier Aldai anaiek Lazkaon jokatu zuten, eta 22-12 galdu zuten. Eta, azkenik, Igor Apraizek eta Beñat Iñarrak osatutako senior mailako bikotea Urretxun galtzaile izan genuen (22-6).

Bihartik abendura bitartean Pala Txapelketa jokatuko da Angiozarren

E.M.

Bikotekako Pala Txapelketaren lehenengo jardunaldia jokatuko da bihar, zapatua, Angiozarren Arbiaska pilotalekuan. Hiru partidu iragarrita daude biharko. Sei bikotek hartuko dute parte txapelketan.

Bergarako bi bikote arituko dira txapela lortzeko ahaleginetan: alde batetik, Asier Muruamendiaren eta Jaime Acedok osatutakoa, eta, bestetik, Ibon Muruamendiaren eta Iñigo Lizarralderen arteko bikotea. Gainerako

lau bikoteak honak hauek dituzte: David López eta Gaizka Okariz (Ermua), Iban Díaz eta Iñigo Hernández (Arrasate), Iban Tueros eta Eneko Urain (Eibar) eta Iñigo eta Ismael Pradera (Mallabia). Bestetan baino partaidetza txikiagoa izan da aurtengo ekitaldian.

Txapelketa Debagoieneko Zirkuiturako puntuagarria izango da, eta, ohikoa denez, partiduak gomazko pilotarekin jokatuko dituzte, 35 tantora. Txapelketako lehen fasea liga sistema jarraituta jokatuko dute; hau da, bikote guztiek elkarren aurka jokatu behar-

ko dute. Lehen jardunaldian honako partiduak izango dira, bihar: Muruamendiaren-Acedo Lopez-Okariz bikotearen aurka, 16:00etan; Díaz-Hernández bikoteak Tueros-Urain bikotearen kontra jokatuko du, 17:00etan; eta, azkenik, Muruamendiaren eta Lizarralde Pradera anaien aurka neurtuko dituzte indarrak, 18:00etan.

FINALA, ABENDUAREN 14AN

Txapelketako lau bikoterik onenak finalerdietarako sailkatuko dira, eta finala abenduaren 14an jokatuko da.

Tenisa, dantza, gimnasia eta aerobika, Udalaren eskaintza

E.M.


Udaleko Kirol Zerbitzuak tenis, dantza, sasoian egoteko gimnasia eta aerobik ikastaroak antolatu ditu hurrengo hilabeteotarako. Adin guztietako kirolzaleek eskaintza zabala izatea da Udalaren helburua.

Aurreko urteetan moduan, Udaleko Kirol Zerbitzuak 2002-03 denboraldirako eskaintza kaleratu du. Adin guztietako kirolzaleei (emakume zein gizonezko) hainbat jardueratan aritzeko aukera eman nahi die Kirol Zerbitzuak, eta tenis, dantza, sasoian egoteko gimnasia eta aerobik ikastaroak izango dira.

Tenis ikastaroa martitzenean eta eguenetan izango da, kiroldegian, 18:15ean, eta hasiera eta hobekuntza mailak bereiztuko

dituzte. Dantza eskolak, berriz, Matxiategiko Aranzadi Ikastola-ko gimnasioan izango dira, martitzenean eta eguenetan. Sasoian egoteko gimnasiari dagokionez, astean bi edo hiru egunean eskainiko dute, Labegaraietako kiroldegian, Mariaren Lagundian edo Matxiategiko Aranzadi Ikastola-ko gimnasioan. Eta, azkenik, aerobika kiroldegian eta Ipintza Institutuan egiteko aukera izango da.

Aurreko urteetan Kirol Zerbitzuak antolatutako kirol jarduerak erantzun ezin hobea izan dute herritarren partetik. Jarraian batzuen kasuan plaza mugatuak dira. Hortaz, interesatuek Kirol Zerbitzura (943 77 91 67 telefono zenbakia) jo beharko dute argibide eske. Kirol Zerbitzuko bazkideendako prezio bereziak egingo dira.



Aerobika kiroldegian eta Ipintza Institutuan emango dute.

ARTXIBOA

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Torrekoa-Pirulotarrak. Fac
10:30: Aterpe-Fac. Torrekoa
19:30: Dedo Pafarru-De Ore. Agirrebeña

ZAPATUAN, KANPOAN

18:30: Agirrebeña-Artusamak. De Ore

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Etengabe-Txipiron. Errotagain
10:30: Errotagain-Belengua. Bayer
11:30: A Ze Flaxa-Bayer. Bar Bedarreta
12:30: Las p. de Sat.-Bedarreta. A Ze Flaxa
16:00: Bar Canalejas-Argandolas. Mongatx.
17:00: Pagomendi-Mongatxur. Argandolas

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Udaletxeko areto nagusian egingo du emanaldia bihar, zapatua, 19:30ean

Urrezko Aroko poesia, Julia León abeslariaren eskutik

MONIKA BELASTEGI

Julia León ikerlari eta abeslariak emanaldia egingo du bihar, zapatua, 19:30ean, udaletxeko areto nagusian. 'Urrezko aroa' du izena eta emanaldian barrena Errenazimenduko poeta mistikoak, erromantzeak eta poeta barrokoen lanak eskainiko ditu.

Iaz ere izan zen Julia León herrian Udazken Kulturalaren barruan emanaldia egiten. Sefardi musikan oinarritutako *Lorategi Ezkutu*a emanaldia egin zuen. Bihar, berriro izango da gure artean, eta Urrezko Aroan oinarritutako hitz eta doinuak izango dira ekitaldiaren ardatz. Emanaldiak berak ere halaxe du izena, *Urrezko Aroa*, eta hiru zatitan dago banatuta: lehen zatia Errenazimendu garaiko poeta mistikoetan oinarrituta dago, eta, guztira, zortzi poetaren hitzak ekarriko ditu gogora Leónek. Besteak beste, Garcilaso de la Vega, Bernard Detxepare, Santa Teresa de Jesus eta San Juan de la Cruz.

Musikari dagokionez, konposizio gehienak Julia Leónek egin ditu, garaiko doinuetan oinarrituta. Gainera, orduko Zaldun gisa jantzita egingo du Leónek emanaldiaren lehen zati hori.

ERROMANTZEAK ETA POETA BARROKOAK
Bigarren zatia herri lirikan oinarrituko da, eta erromantze-bilduman jasota dauden abestiek osatuko dute; bai herri abestiek




Julia Leónek lau musikaririk lagunduta egingo du emanaldia.

baita jasoek ere. Hamabi erromantze inguru izango dira. Doinuak ere herrikoiak dira, belaualdiz belaunaldi guganaino heldutakoak; eta Julia Leónek halaxe errespetatu ditu.

Emanaldiaren bigarren atal horretan arrote maltzur jantzita azalduko da León.

Hirugarren atala poeta barrokoen gainean izango da, besteak beste, Cervantes, Luis de Góngora eta Arnould Oihenart.

Doinuak, bestalde, Julia Leónenak dira, eta Errenazimendu eta Barroko garaietako doinuetan oinarritua daude. Atal horretan Dama jantzita azalduko da.



Azurrek argazki erakusketa du ikusgai Ondarroan, 31ra arte

Azurrek erakusketa ireki du Ondarroako Basati Pizta pizzerian. *Euskal txokoak* bildumako hamahiru argazki dira erakusketaren ardatz nagusi, baina hainbat kartel ere izango dira. Eguenetan, egubakoitzetan eta zapatuetan dago ikusgai, urriaren 31ra arte. Irudikoa erakustetan ikus daitekeen argazkietako bat da (orijinala koloretan da).

'Lección de Orgasmo I' antzezlan gaur, gaztetxean

MONIKA BELASTEGI

La Patro antzerki taldeak 'Lección de Orgasmo I' antzezlan jokatu du gaur, 22:30ean, gaztetxean. Emanaldi hori, gaztetxeak antolatuko duen antzezlan sorta baten lehenengoa da.

Gaztetxeak antolatzen dituen ekitaldi sortei beste bat gehituko zaie aurrerantzean: antzerkia, hain justu ere. Hileko azken egubakoitzean antzezlan bat ikusteko aukera izango da, kartzela zaharretan.

Sorta horren lehen emanaldia gaur izango da, 22:30ean, eta La Patro antzerki taldeak *Lección de Orgasmo I* lana jokatu du.

Eva López aktorea orgasmoaren gainean berbaldia egin behar duen sexologo bihurtuko da antzezlanean. Ikerketa baten arabera, emakumezkoen %45ek


orgasmoa izan ez eta itxura egiten dute. Hori dela eta, berbal-dian gaitz hori erremediatu eta hiru urtera orgasmoa nola lor daitekeen erakusten saiatuko da nola emakumezkoek hala gizonzkoek. Hori guztia irakasteko, umore handia, arbela eta ikusleak erabiliko ditu sexologoak.

Eva Lópezen esanetan, sexua-aren gainean ditugun "hainbat uste oker eta topiko umorez jorrazteko helburua" du antzezlanak.

ZINEMA ETA MUSIKA

Bestalde, datorren eguaztenean, zinema emanaldia izango da, 22:15ean, gaztetxean: Roberto Benigni zuzendariaren *La vida es bella* filma eskainiko dute.

Azkenik, egubakoitzean, kontzertua izango da, 22:30ean, eta hiru taldek hartuko dute parte: Iruñeko Electricriders, Bartzelonako Riverside Speedway eta Gironako Los Callahans taldeek.



Eva López Gasteizeko aktorea da antzezlaneko sexologo arduratsua.

Argazki Rallya domekan, Pol-Pol argazki taldeak antolatuta

MONIKA BELASTEGI

Edozein zalek har dezake parte, eta gaiak eta rallyaren ibilbidea izena emateko orduan emango dituzte ezagutzera.

Izenematea Pol-Pol argazki taldearen egoitzan egingo da (Zabalotegi kalea, 5), 08:30etik 09:30era, eta prezioa 10 euro da. Argazki-filmak 14:00etan bueltatu beharko dira, toki berean.

Azaroaren 4an jaso beharko dituzte lehiakideek argazki-filmak errebelatuta, 20:00etatik 21:00etara, argazki taldearen egoitzan. Lehiakide bakoitzak gai bakoitzeko diapositiba bana aukeratu, eta azaroaren 11n eman beharko dizkie antolatzaileei, 20:00etatik 21:00etara. Sari bana-keta eta diapositiben emanaldia azaroaren 22an izango dira, 20:00etan, taldearen egoitzan.

LABUR

Yana Curi erakusketa domekan itxiko dute, eta UNEDeko Pintura Lehiaketakoa zabaldu

Egunotan ikusgai dagoen Medicus Mundi elkartearen Yana Curi erakusketa domekan itxiko dute. Erakusketa horretan, Amazonasko (Ekuador) petrolio jardueren biztanleengan duten eragina erakusten duten argazkiak daude ikusgai. Datorren eguenean (hilak 31), UNED zentroak antolatutako I. Pintura Lehiaketako lanen erakusketa irekiko dute kultura etxean.

E, TXO!

HASI DIRA GAZTETXEKO ZINEMA EMANALDIK
 Duela pare bat aste hasi zituzten ikasturte berriko gatzetxeke zinema emanaldiak. Hemendik aurrera, eguaztenero, 22:15ean, film bat eskainiko dute. Datorren eguaztenean, esaterako, urriaren 30ean, *Navajeros* filma ikusteko aukera izango dugu; gatzetxean, 22:15ean, esan bezala.

ANTZERKI EMANALDIK GAZTETXEAN
 Gaur, egubakoitza, La Patro antzerki taldearen *Lección de orgasmo* izeneko antzezlan ikusteko aukera izango dugu, 22:30ean. Eta gaurtik aurrera, hileko azken egubakoitzetan antzezlan bat ikusteko aukera izango dugu Bergarako gatzetxeke aretoan.

EUSKARA TEKNIKARI LANPOSTUA AZKOITIAN
 Azkoitiko Udalak euskara eta hizkuntza normalizazioarako teknikari bat kontratatzeke deialdia egin du. Horretarako, beharrezkoa da lizentziaduna izatea eta laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea. Teknikari lanpostu horretarako eskaerak urriaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira.

ADMINISTRAZIO TEKNIKARI BAT LEGAZPIN
 Legazpiko Udalak administrazio orokorreko teknikari bat kontratatzeke deialdia egin du. Betebeharren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, www.gipuzkoa.net webgunean edo Legazpiko udaletxean bertan topatuko duzue. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 30era arte dago zabalik.

GUREGAIK/ LAN BILA

Curriculuma bidaltzea, lana topatzeko bidea

AINTZANE IRIZAR

Gazte askok irailean bukatu dituzte ikasketak, eta lana topatzen hasteko garaia iritsi zaie. Horretarako, curriculuma prestatzea izaten da nork bere burua aurkezteko modurik egokiena eta ohikoena.

Ez da lan erraza izaten lana topatzea, ezta nork bere burua salatzea ere.


Horretarako, esan bezala, curriculumak bidaltzea izaten da ohikoena eta lana topatzeko biderik egokiena.

Ez dago curriculumak egiteko modu jakinik, eta teoria asko daude curriculumaz zelan egin behar den esaten dutenak.

Dena dela, guztiak bat datoz curriculumak ahalik eta orri gutxien izan behar duela esatean; orri bat edo bi izan behar du curriculumak, gehienez ere. Era eskematikoan azaldu behar dira gure datuak.

CURRICULUMA OSATZEN

Hasteko, datu pertsonalak jarri ohi dira: izen-abizenak, jaiotze-data eta helbidea, besteak beste. Bigarren zati baten ikasketen eta lan esperientziaren gaineko datuak jarriko ditugu: egin ditugun ikasketak, dauzkagun titulazioak, egindako ikastaroak, gidabaimenik dugun eta lan esperientziarik dugun. Azkenik, duela gutxiko gure argazki bat bidaltzea ere komenigarria izaten da.



Curriculuma ahalik eta laburrena izatea gomendatzen dute.

IKER BARANDIARAN

LOTSABARIK/ Peio Muxika

“Izugarri gustatzen zaizkit animaliak”

AINTZANE IRIZAR

Oraindik 15 urte dauzka, baina garbi dauka arkitekto izan nahi duela. Fantasia sexualaz galdetzerakoan ere garbi asko zeukan erantzuna, eta gutxi egiten dutena egin digu: azkeneko galderari erantzun.

- Txikitari, zer izan nahi zenuen?
 Animalien dokumentalak grabatzen lan egin nahi nuen; izan ere, asko gustatzen zaizkit animaliak, lehoiak, batez ere. Dokumental asko ikusten nituen.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?
 Arkitekturako ikasketak egin

- nahi ditut; hortaz, arkitekto lanetan eta familia batekin ikusten dut neure burua.
- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berrero?
 Etxean laguntzeko; nik neure gauzak jasotzen ditut, baina besteenei ez diet kasurik egiten.
- Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.
 Normalean, nahi dudana egiten dut; dena dela, *pelota* pixka bat egitea taktika ona izaten da.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
 Lagunei eta familiari.
- Zure bertute bat?
 Hori besteek esan beharko lukete; dena dela, uste dut esku-zabala naizela.

- Eta hutsune bat?
 Azkar galtzen dut pazientzia.
- Zerk amorratzen zaitu?
 Gezurretan ibiltzen direnek.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
 Eskumako eskuko erdiko atzamarreko azazkalaren goiko partea.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?
 Ipurdiari eta janzkerari.
- Zer egiten duzu seduzitzeko?
 Ezer gutxi egiten dut; zerbait egitekotan, begiradarekin seduzitzen dut.
- Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?
 Britney Spears-ekin, Karibeko hondartza baten.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko laugarren maila • ZALETASUNAK: Musika, kirola eta lagunekin egotea • MUSIKA TALDEA: Korn LIBURU BAT: 'Viaje al centro de la Tierra', Julio Verne-rena • FILM BAT: 'Matrix' eta 'El único' • KIROL TALDEA: Tau Baskonia

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



Kfg.02.

ELKARRIZKETA

AGUSTIN OZAMIZ/SOZIOLOGIAN DOKTOREA ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

“Gizarteak zaharrak integratu behar ditu, arlo guztietan”

EDU MENDIBIL

Agustin Ozamizek ‘Gizarte osasuntsu eta gaixote baten arteko aldeak’ izenburuko berbaldea egin zuen eguenean Miguel Altunako aretoan. Ozamiz EHUKo irakaslea eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko teknikaria da.

Zerk bereizten du gizarte osasuntsu bat?

Afrikako gizarte bat eta Europako gizarte bat konparatzean, oso erraz bereizten dira. Afrikan biztanleen erdia baino gehiago oso egoera larrian dago, hiesa, tuberkulosia, malaria, eta bestelako gaitzengatik. Antolamendu politikoak eta ekonomikok ere badute zerikusia horretan: Afrikako hainbat herrialdek badiutze medioak, baina antolamendua ez da egokiena, beharbada. Europaren eta AEBen artean ere badira diferentziak: AEBek diru asko bideratzen dute osasun sistemara, baina ez dituzte hemen bezain adierazle onak, beharbada, hango gizarte individualistagoa delako. Bizi itxaropen handiena Mediterraneo inguruko herrialdeetako da. Gizarte osasuntsu baten faktoreen artean jendearen parte hartzea, solidaritatea eta giza antolamendurekiko konfiantza aipatuko nituzke.

Euskal Herriko gizartearen diagnostiko bat egingo zenuke?**Beste herrialde batzuen aldean, asko hobetu dira gure osasun adierazleak**

Diagnostikoa beti izan daiteke konparatiboa. Ezin duzu esan hobera egin ez dezakegunik. Gauzak hobe daitezke, eta horretan gabiltza, baina konparatzen badu-

gu gure egoera AEBen egoerarekin, zer esanik Afrikako herrialdeekin edo Europa ekialdeko herriekin ere izugarri hobetu dira gure osasun adierazleak. XX. mende hasierako gizartearekiko ere aurrerapauso handia eman dugu: orduan, bizi itxaropena 45 urtekoa zen eta orain, berriz, 80 urtekoa da emakumeen kasuan eta 75 urtekoa gizonezkoetan. Hala ere, gaixo mentalen kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan, eta esan behar da ondo bizi den gizarte baten berezko gaitzak direla horiek. Gaixo horiengan arreta berezia jarri

Erretiratuengan arreta handiagoa jarri behar dugu, gizarte zahartzen ari delako

beharko genuke etorkizunean. Orokorrean bada ere, diagnostikoa nahiko ona izango litzateke, baina asko daukagu egiteko egoera idealera heltzeko.

Eta zeintzuk dira erronka nagusiak hobera egiteko?

Jaurlaritzako Osasun Sailak hurrengo 10 urteotarako politika sanitarioa aurkeztu berri du, eta bertan lehentasun batzuk zehazten dira. Plan ulerkorra da, ingurugiroarengan eta gizartearengan eragina izan nahi duelako. Gaixotasun problematikoak ere kontuan hartzen ditu: besteak beste, hiesa, minbizia, gaitz mentalak, diabetesa, tuberkulosia, ospitaletan sortzen direnak, txerto bidez osa daitezkeenak... Auto eta etxeko istripuak prebenitzeko estrategiak ere landu nahi dira. Horiek izango lirateke lehentasunak etorkizunari begira.

Zelan ikusten duzu erretiratuaren zeregina gaur egun?

Erretiratuengan arreta handiagoa jarri behar dugu. Gizarteak gaztetasuna baloratzen du gaur egun, baina gizarte zahartzen ari da. Frogatuta dago osasun arazoak 80 urtetik aurrera areagotzen direla, ordu arte pertsona asko eta asko oso egoera onean direla. Estrategiak badaude, eta erretiro boluntarioa aukeratako bat izan daiteke. Bakardadea arazo nagusietakoak bihurtzen ari da Europako herrialde askotan, ez gurean oraindik. Aktibitatea, harremanak eta familia oso garrantzitsuak dira, eta zaharren integrazioarako zubiak egin behar dira. Gizarteak zaharrak integratu behar ditu arlo guztietan, politikan, ekintza sozialean, erabakietan.

ZAHARREN ETXETIK

Hamabostaldiaren amaiera ekitaldia bihar

E.M.

Bihar, zapatua, Kultur Hamabostaldiaren amaiera ekitaldia izango da, Miguel Altunako aretoan, 12:30ean. Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Mireia Unamuno Antzuolako alkatea eta

San Joxepeko zuzendaritzako kideak izango dira ekitaldian. Aurtengoa Kultur Hamabostaldiaren VI. aldia izan da, eta *Osasun integrala* lelopean berbaldiak, mahai-inguruak eta beste hainbat jarduera izan dira urriaren 4az gerostik. Miguel Altunan

antolatutako berbaldiek jende ugari erakarri dute.

Bihar eguerdiko ekitaldiaren ostean, herri bazkaria egingo dute, Zabalotegiko pilotalekuan, 14:30ean. 100 lagun inguru elkartuko dira bertan, eta bazkalostean, zozketa eta dantza izango dira.


GAUR, SARI BANAKETA NOVEDADESEN

Bestalde, gaur, egubakoitza, lehen eta bigarren hezkuntzetako ikasleei zuzendutako Idazlan Lehiaketako sari banaketa egingo dute, Novedadesen, 19:00etan. Sari banaketaren ondoren, Barruti magoak saioa eskainiko du.

LABUR

San Joxepen Informatika Gela zabalik dago

San Joxepeko zuzendaritzak jakinarazi duenez, Informatika Gela zabalik dago bazkideendako aste barruan, 17:00etatik 19:00etara. Argibideak, 943 76 30 09 zenbakian.



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein etxetan daude ezkerreko farolak eta zein jauregitan dago eskumako farola?

PINTOREBERGARARRAK GAUR


Fernando Arenaza

EDU MENDIBIL

Azken erakusketa *Batzuetan baikor agertzen naiz* izenburua-arekin egin zuen Fernando Arenazak (Bergara, 1952), udaberrian, Donostian: "Bizi dugun egoera politiko eta sozialaren aurrean izaten ditugun jarrerak eta gorabeherak adierazi nahi nituen, transgresio eta ironia puntuarekin. Nire margolanekin hausnarketa piztea da helburuetako bat, galderak plazaratzea, eta emozioaren eta arrazoiaren artean beharrezkoa den harreman hori sortzea". Arenaza Donostian bizi da eta Diputazioan dihardu lanean. Margolaritzan ibilbide luzea egin du, gaztetan, Bartzelonan ikasten zegoela, informalismo katalanak eta pop arteak eragin ziotenetik. Hainbat sari lortu ditu, tartean, Elias Salaberria lehiaketako lehen saria (1990) edo Donibane Lohizuneko *Salon des Independents* delakoan lortutakoak.

Barne prozesu baten ondorioz sortutako margolanak egiten ditu, teknika mistoarekin. Adorno filosofoaren esaldi batetik abiatuta, txankleten gaineko serie bat egiten ari dela diosku: "Makurtzeari diogun gorrotoaren adierazle direla dio Adornok".

"Margolanekin hausnarketa piztea, galderak plazaratzea da nire helburuetako bat"



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat proposamen luzatui dizkio Udalak Diputazioari saihebidetara hobetzeko?

- A/ Hamasei.
- B/ Hamaika.
- C/ bederatzia.

2.

Nola deitzen da Julia Leon abeslariak zapatuan egingo duen emanaldia?

- A/ Urrezko aroa.
- B/ Lorategi ezkutua.
- C/ Poeta mistikoak.

3.

Bergararrak dira hirurak baina batek ez du Aloña Mendi futbol taldean jokutzen. Zein?

- A/ Iñaki Mujika.
- B/ Xabier Lete.
- C/ Jokin Mendiaratz.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

URKI IBARGURENendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Urki!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ibargarain / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Calvo atun argia

Landare-oliotan, hiru lata.

1,19 €

198 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

Margan,
Partikularren
arropen
konponketak
egiten ditugu

AUKERAN DITUZU
UDAZKEN-NEGUKO
ARROPA GUZTIAK

MARGA jantzi-denda
San Pedro 20. Bergara.
Tel. 943 76 05 37

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Leire Sanz
Urriaren 30ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maialen Rodriguez
Urriaren 25ean 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Mikel Azkarate
Urriaren 27an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Arkauz
Urriaren 22an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ELGETA
Amaia Ibarluzea
Urriaren 24an urtebetetzea. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Julen Molpeceres
Urriaren 27an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Jon Imanol Elgarresta
Urriaren 26an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Olatz Alberdi
Urriaren 28an urtebetete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Maialen Alkorta
Urriaren 26an urtebetete.
Urte askotarako!
Laguntxoak.



ELGETA
Mikele Azkarazo
Urriaren 25ean urtebetete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Andoni Najera
Urriaren 27an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Mikel.



BERGARA
Andoni Olabarria
Urriaren 29an urtebetete.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77




Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskoizuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA


Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29


ZABALA
JATETXEA • OSTATUA





Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura


GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 25a / 131. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Bärrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Elkartasun Festa egingo dute zapatu arratsaldean

AINTZANE IRIZAR

Ohikoak bihurtu zaizkigu dagoeneko Anelkar Elkartasun Taldeak antolatutako Elkartasun Festak. Biharkoa, baina, berezia izango da. Izan ere, Giokela elkartearen laguntzarekin antolatu dute oraingoa. 18:30etik 20:30era ospatuko dute festa, Zurrategiko plazan.

Anelkarren hasierako asmoa Uruguairako dirua batzea zen, baina azkenean, Senegalgo Casamance eskualdera bidaliko dute bihar, zapatua, ospatuko duten Elkartasun Egunean batutako dirua. Izan ere, irailaren 26an Senegalen gertatutako itsasontzi istripuan Casamance eskualdeko Oussouye herriko 80 lagun hil ziren, eta hango egoera are eta larriagoa da gaur egun.

Istripua izan zuen itsasontzi berean bidali zuten Anelkarrekoek duela hilabete batzuk Antzuolan batutako materiala, istripua baino bi egun lehenago.

SAIHESKI JANA ZURRATEGIN

Biharko Elkartasun Festan Giokela elkarteak emandako eta eurek prestatutako saiheskia jate-



Oussouye herriko neska-mutiko talde bat.

KRISTINA BAKAIKUA

ko aukera egongo da. Esan bezala, Zurrategiko plazan izango da hori, 18:30etik 20:30era, hain zuzen. Horretarako, pintxoak eta ardoa saltzeko postua jarriko dute

hantxe, eta euro bana ordaindu beharko da pintxo eta txikito bakoitzeko. Anelkarrekoek Giokelak eskainitako aukera hori eskertu nahi izan dute.



Txistulariak Katalunian izan ziren

Inguruko herrietako txistulari talde bat Katalunian izan zen orain dela bi aste. Antzuolatik bost txistulari joan ziren, Bartzelonako Euskal Etxeak egindako gonbitari erantzunez. Aurtten, 75 urte bete ditu Euskal Herriko Txistularien Elkarteak, eta hori dela eta gonbidatu zuten kataluniarrek euskal txistulari talde hori. Hilaren 12an eta 13an izan ziren Katalunian, eta Bartzelonan ez ezik, inguruko beste hainbat herritan ere eskaini zituzten kontzertuak./A.I.

HERRITARREN HITZA / Eneko Iturbe • Ikaslea

Gehiegitan, gehiegi

“...Gerrirainoko poltsa bat jarri zidaten...”, “...Une baten, konortea berreskuratu bai, baina ezin nituen begiak ireki, nahiz eta eurek esaten zutena entzun. Urduri jarri ziren eta oihuka hasi ziren mediku bati deitzeko: ‘se nos ha ido’...”, “...hilda nengoela pentsatu nuen...”.

Gehiegitan gertatzen diren jarduerak dira tamalez. Zirrara sortarazten duten egiazko kontakizunak, eta gaur egungo gizarte “demokrata” honetan inongo erreparorik gabe burutzen den estatu terrorismoaren aurpegi krudelena agian. Baina,

ematen al zaie behar adinako trataera eta oihartzuna gizartearen zein komunikabideetan?

Komunikabide gehientsuenei dagokienez, era honetako tortura jarduerarik gertatu ere ez dela egiten sinetsarazi nahi digute, aipamenik egitekotan ere, inongo garrantzirik gabeko trataera emanaz eta benetan daukan pisuaren neurririk inondik ere azaldu gabe egiten delarik.



“Desobedientziaren bideak jorratzeko garaia da”

daude beste batzutan hainbeste aipatzen dituzten giza eskubideak, honelako gertaeren aurrean? Inoiz ez al dute aurpegi eman

Gasteizko gobernuaren auzi honekiko jarrera ere, era berean gaitzestekoa da. Ibarretxe, Balza eta gobernu bozeramaile den Imaz jaunaren hitzek ez dute jadanik inor harritzen, eta gertaera ororen aurrean hartuko duten jarrera antzemangarria izaten da beti. Non

behar benetan zilegi denaren alde, eta bidegabekeria denaren aurrean? Gizarteak noiz esan behar du aho-batez ez dagoela prest honelako bidegabekeriak onartzeko?

Gaur egun ematen den salbuespen egoera honek sortzen duen adierazpen askatasun ezagatik, zail egiten da ahorik irekitzea ere. Baina, egoera honen aurrean, eta honelako zein beste era guztietako Euskal Herriaren aurkako urte luzetako erasoekin behin betirako amaitzeko, bakoitzak dagokion neurrian eta dagokion arloan desobedientziaren bideak jorratzeko garaia da.

LABUR

Zaintzaileendako ikastaroa antolatu nahi du Udalak

Adineko pertsonak edo gaitxoak euren kargu dituzten herritarrendako ikastaroa antolatu nahi du Udaleko Gizarte Ongizateko Sailak.

Ikastaroa antolatu aurretik, baina, parte hartzaile kopurua eta ordutegia zehaztu nahi dituzte ikastaroaren arduradunek.

Hori dela eta, interesa dutenek Udaleko gizarte laguntzailearengana jo dezakete zalantzak argitzera eta ikastarorako izena ematera, urriaren 31 baino lehen.

ELKARRIZKETA

TERE IRASTORTZA/IDAZLEA

“Ikasketa bide intuitiboena eta fidagarriena irakurketak ematen du”

A.I.
Azaroan hasita, Literatura lantegia eskainiko du Tere Irastortza idazle eta irakasleak, Udal Liburutegiak antolatuta. Antzuolan ekimen berria izanik, lantegi horren gaineko xehetasunak jakin nahi izan ditugu Tereren eskutik.


Zer topatuko du Literatura lantegira doanak?

Literatura lantegira datorrenak, aurrena, irakurle on bat (edo batzuk) aurkituko ditu. Zeren eta idazle izateko batek sentitu behar du eta bere irakurlearen presentzia. Bigarrenik, idazteko erabil daitezkeen prozedura eta teknikak ere aurkituko ditu. Nire asmoa ez da *hau edo hau ikasi behar duzue* adieraztea, baizik eta lantegira datozenek sortu dutenetik abiatu eta behar duten laguntza ematen saiatzea. Hala ere, hasteko, bi abiapuntu erraz jarriko ditut aukeran: egunero-koa eta gutuna. Hortik aurrera inoren esperientzietatik poesia edo ipuina idazteko behar diren hastapenak ere aurkeztuko ditut. **Estilo literarioan idazten, hortaz, ikas daiteke; baina berezko abildadea ere behar-ko da, ezta?**

Idazteko zer esana behar da, aurrena. Hori, idazteko gogoan duten gehienek izaten dute, baina idazteko gogorik ez duten askok ere. Bigarrenik, hiztun-gaitasuna behar du, hau da, euskaldun ona izatea, idazten ohituta ez badago ere. Hirugarrenik, erabili nahi duen generoarekin asmatu behar da. Eta gerokoa, arituaren poderioa ere behar da. Abildadea ez da txarra, baina errazkeriara ere eraman ohi du, beste lanbide eta gauza askotan bezalaxe. Saiatuaren poderioan mamiak irabazten du.

Egoki idazteko, irakurtzeko zaletasuna izatea ere garrantzitsua izango da, ezta?

Bai. Nik uste dut, hala ere, barruan idazteko joera duenak



ARGIA

“Idazteko, aurrena, zer esana behar da, eta hori, idazteko gogoan duten gehienek dute”

berekin ekartzen duela gehienetan irakurzaletasuna. Ezbairik gabe, ikasketa bide intuitiboena eta askotan fidagarriena irakurketak ematen du. **Zeini zuzenduta dago eskainiko duzun Literatura lantegia?**

“Barruan idazteko joera duenak berekin ekartzen du gehienetan irakurzaletasuna”

Edozeini. Bai gazteei, lehiaketetan parte hartu edo sariren bat irabazi dutelako bide hori joratu nahi dutenei... Baina baita jende helduari ere, pasadizo asko gorderik dauzkan horri, norbaitek -agian ezagutzen ez duen norbaitek- irakurri zain.

LABUR

Igartza, Telleria eta Errasti izan dira aurtengo Argazki Lehiaketako irabazleak

Hamalau urtetik beherakoen artean, parte hartzaile guztiak jaso dute saria. 15 eta 25 urte bitartekoetan mailan, Maite Telleriak eta Nagore Igartzak jaso dute lehen saria. 26 urtetik gorakoetan artean, azkenik, Josu Errasti izan da irabazlea. Asteburuan, erakusketa izango da, Olaran etxean, aurkeztutako argazki guztiak.

Azaroaren 10ean (domeka) hasiko dira zinema emanaldiak Olaran etxeko aretoan

Urtero moduan, neguko eta udaberriko hilabeteetan zinema emanaldiak eskainiko dituzte. Azaroaren 10ean hasi eta Aste Santura arte, domeka arratsaldero eskainiko dute film bat.

Aurten, baina, badago berritasun bat: maristena izandako erakinean zegoen zinema aretoan eman izan dituzte filmok, baina aurtengo ikasturtean, Olaran etxean emango dituzte.

Euskal Herriko Naziotasun Aitormenak oraingo astean heldu dira udaletxera

Oraingo astean bertan jaso dituzte Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren agiriak udaletxean. 100 bat lagunek egin dute eskaera Antzuolako Udala agiri horiek tramitatzen hasi zenetik. Agiriok jasotzera joateko deituko diete eskatzaileei Udaleko arduradunek.

Atzo, eguena, argitaratzekoak ziren Udal Etxegintzan izena emandakoen zerrendak

Irailen amaitu zen Udal Etxegintzaren etxebizitzetarako izena emateko epea, eta guztira, 63 lagunek eman zuten izena. Atzo, eguena, egindako osoko bilkuran onartzekoak ziren izena emandakoen zerrenda, eta eskaera guztiak onartu dituzte.

Mendi Federatu Txartela egiteko aukera dago Arrola mendi elkartearen eskutik

Martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara, Arrolaren egoitzan, Kalebarrenean, egin ditzakezue txartelak. Aurretik federatuta daudenek ez dute ezer egin behar; lehen aldiz federatu nahi direnek, berriz, Naziotasun Agiria eraman behar dute.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urriak 26
16:30: Antzuola-Bergara B (2. erreg.)

PILOTA

Urriak 26
(Herri mailako pilota txapelketa)
Goizean, 09:00etan, eta arratsaldean, 16:00etan, jokatuko dituzte pilota partiduak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Gazteak 4 Antzuola 3 (2. erregion.)
Antzuola 2 Bergara 3 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Bergara-Olalde (eskuz gazteak). 22-19
Olalde-Añorga (eskuz nag.). 15-22
Oñangu-Olalde (paletaz nag.). 35-29

Giokela, Berme Osoko Okela

ANTZUOLAN

2002 -10- 26

Arratsaldeko 18:00

Antolatzaileak

ANELKAR taldearen aldeko
HARAGI PINTXO DASTAKETA

MUJIKA Harategia eta ANELKAR Taldea



Zer jan, hura izan!

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko urriaren 25a / 115. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Iñaki Salvadorren emanaldia Espaloian

OXEL EROSTARBE

Indartsu hasi du udazkena Kultura batzordeak. Antolatutuen ekitaldiak dira horren erakusle. Gaur, egubakoitza, Iñaki Salvadorren piano doinuak izango dira entzungai Espaloian, 22:00etan. Datorren astean, berriz, Markeliñeren bi antzezlan antolatu dituzte.

Piano, akordeoi, armonia, kontrapuntu eta fuga ikasketa klasiakoak egindakoa da Iñaki Salvador. Besteak beste, Mikel Laboa, Txomin Artola, Oskorri, Imanol, Luis Eduardo Aute edo Mikel Markez abeslari ezagunen diskoetan parte hartu du. Jazz taldeen buru ere izan da: Iñaki Salvador Trío, Naima Quartet, Andrzej Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet, Iñaki Salvador & Zilbor Hestea, horren lekuko.

Antzerki taldeendako konposizioak eta moldaketak ere egin izan ditu Iñaki Salvadorrek. *Urte Illunak*, *Maité* eta *Si, quiero* film luzeen musika Salvadorrek egindakoa da, adibidez. Gaur, Kultura batzordeak antolatuta, haren doinuak entzuteko aukera aparta izango dugu, 22:00etan.



ARTXIBOA

Iñaki Salvadorren emanaldia izango da gaur gauean Espaloian.

DATORREN ASTEAN, ANTZERKIA

Azaroaren 1ean eta 2an, Markeliñe antzerki taldearen bi lan ikusteko aukera izango dugu. Azaroaren 1ean, nagusiendako

den *Punta. Rabo* antzezlan izango da ikusgai, eta azaroaren 2an, *Kartoibiraka*, umeendako antzezlan. Antzezlanotara joateko sarrerak udaletxean daude salgai.

BASELIZAK

San Antonioko baselizia barritzen

Aurreko astian hasi ziran San Antonioko baselizan konponketak egiten. Hillia amaittu aurretik lanekin amaittuko dabela espero dabe. Teillatua, baseliza barruko estrukturia eta kanpoko paretak konponduko ditue. Baselizan zeguan sakristixia, barriz, bota egin dabe. Antzuolako hiru igeltserok dihardue baselizia konpontzeko biharrian. Konponketak egin arren, San Anto-

nioko baselizak beti euki daben itxuriari eustia da asmua.

BASELIZA ZAHARRENETAKUA

1699kuak dira horren ermittaorren lehen agirixak Elgetako udaletxian. Inguruko ermitta danak moduan, elizburua ekialdera begira dauka. Erretaulia biharrian margo barrokua dauka santuaren irudixakin; horrek marguok bertan mantenduko ditue.



Hillia amaittu aurretik barrittuta geratuko da San Antonioko ermittia.

HERRITARREN HITZA / Igor Arizmendiarieta • Kimikaria

Nik ez daukat errurik

Gauza nabaria da teknologiaren aurrerapena medio gauza dezente aldatu direla urte batzuetatik honantz. Teknologiaren semetxoak diren telefono mugikorrek dira horren erakusgarri. Lehen telefono mugikorra zuen pertsona arrarotzat jotzen zen bezala, gaur egun, ez duenari jotzen zaio arrarotzat.

Azken urteetan konturatu naiz gero eta zailagoa dela, bai trenean edo autobusean egiten ditugun bidaietan, mugikor hotsik ez entzutea bidaiak irauten duen bitartean. Afari edo bazkari batean norbaiti

txirtxilak dei inozo bategatik jotzen dioneko egoerak ugaritzen ari diren bezala. Berdin gertatzen da liburutegietan, ohizko soinuaz gain bibrazio bidezko mugikorren dantzaldia erantsi beharko diogularik ikuskizunera.

Baina beno ezin ukatu guretzako onurak ere ekarri dituela mila izeneko gailu horrek. Alde onak dituenik ezin ukatu.



“Kobertura kaskarraren kontua izango delakoan nago”

kazio izugarria daukagu gure artean. Kobertura kaskarraren kontua izango delakoan nago.

Bestalde, badirudi gure arteko harremanak beherantz doazela, ikusten diren telefono mezu eta deien hazkuntzaren aurkako norabidean. Gure ingurura begiratzea besterik ez dugu, gure artean bizitzako arlo guztietan konpontzeko izateko ditugun komeriak ikusteko. Inkomuni-

Beste batzutan aldiz komunikazio gehiegikeria; hitz multzo hau idatzi aurretik, soinu sarkor batek ohartarazi dit nire lantokian oraindik jende ugari dagola gaizki hezia! Mugikorrak jo dion pertsonarengana joan naiz nire egin beharra betetzera eta hara erantzuna: “Nik ez daukat errurik jendeak telefonora deitzen badit”. Eta lasai asko geratu da mugikorra derrigorrean itzalita izan behar den leku honetan beti ere besteen begiradapean.

Mugikorrak bai baina ondo erabiliak badira denon mesederako izango da, besterik gabe ea gure kobeturak hobetzen diren.

LABUR

Goibekoren Gabonetako loteria salgai dagoeneko

Herriko taberna eta denda gehienetan salgai dago Goibeko Kultura Elkartearen Gabonetako loteria. Hiru euroko txartelak jarri ditu salgai elkarteak, eta 51.203 zenbakia aukeratu dute. Iaz, agortu egin zen Goibekoren Gabonetako loteria, eta asko loteria txartel barik geratu zineten. Lehenbailehen erostea duzue onena. Zorte on! Bestetik, Goibeko hasi da bazkide direnei aurtengo kuota kobratzen. 125 bazkide ditu aurtun ere Goibekok.

ZERBITZUAK

KZGunea eta Elgetako webgunea gertu azaroaren erdialderako


OXEL EROSTARBE

Astebete atzeratu dute KZGunearen irekiera, azaroaren 11ra, hain zuzen ere. Egun horretan bertan hasiko dira Interneten inguruan antolatuko dituzten ikastaroak. Bestetik, Elgetako webgune dinamiko amaitzen ari dira; azaroaren 10ean egingo dute aurkezpena.

KZGunean emango diren ikastaroak 18 urtetik gorakoendako dira. Bereziki, erretiratu, etxe-koandre, iraupen luzeko langabe eta ikasketa-maila baxuak dituzten langile aktiboek zuzendutakoak. Ikastaro guztiak doan dira eta parte hartu nahi dutenek udaletxean eman behar dute izena. Azaroan, goizez izango dira ikastaroak: 09:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 13:00etara nabigatzeko aukera egongo da KZGunean. Abenduan, berriz, arratsaldean emango ditu zerbitzu horiek guztiak KZGuneak.

Ikastaro bi emango dituzte, batek 22 ordu iraungo du eta besteak, berriz, 10. Hamar ordukoak 45 urtetik gorakoendako pentsatuta dago, eta ikastaro hori egin ostean 22 orduko egiteko aukera ere izango dute. Bi ikastaro horiez gain, gai konkretuen gaineko informazioa Interneten bilatzeko ikastaroak ere emango dituzte.

Kultura etxean kokatuko da KZGunea, eta lehen bi hilabeteetan ikastaroen ordutegian egon-



Web-gunea amaitzeko lanak nola doazen erakutsi digu kultur teknikariak.

go da zabalik. Orain arte gela hori erabiltzen zutenendako (Alkoholiko Anonimoak, ludotekako umeak...) gela bat gertatu dute eskola zaharretan.

WEBGUNE BERRIAREN AURKEZPENA

Bestalde, azaroaren 10ean, 13:00etan, Elgetaren gaineko webgunea aurkeztuko dute. Internet bidez herriaren gaineko informazioa jasotzeko aukera emango digu. Goienak diseinatu duen

webguneak zenbait berritasun izango ditu. Atal finkoa izango du, eta, besteak beste, herriaren historia, egin daitezkeen ibilbideak, telefono interesgarrienak, osoko bilkuretako eta batzordeetako aktak izango dira.

Webgunea guztiz dinamikoa izango da: Elgetako Udalean sortzen diren notiziak azalduko dira, eta etxeko posta elektronikoa albisteak jasotzeko aukera ere emango du webguneak.

LABUR

Martitzenean odola ematera gerturatzeko dei egin dute Elgetako odol emaileek

Martitzenean, 18:00etatik 20:00etara, odola emateko aukera izango dugu elgetarrok. Ahal duten guztiak udaletxera gerturatzeko dei egin du Elgetako Odol Emaileen Elkarteak.

Urtean barrena lau alditan egoten da odola emateko aukera. Odola batzera etorri ziren azkeneko aldian 68 lagun hurbildu ziren odola ematera. Odol Emaileen Elkarteak odola ematearen garrantziaz ohartarazi nahi ditu elgetarrok. Izan ere, ospitaleetan odola behar dute; gero eta gehiago, gainera.



Herriberrin izan dira erretiratuak

Aurreko astian Maltzaga eta Zumarraga arteko trenbide zaharrian zihar urteeria egin ostian, hemen astian, Herriberrin ezagutzen izan dira herriko erretiratuak. Aurrera be irteerak egiten jarraitzeko asmua azaldu dabe erretiratuen elkarteok arduradunek. Argazkixan, aurreko astian Maltzaga eta Zumarraga arteko trenbideko ibilbidia egin zebenak. /O.E.

KIROLAK


Porrotarekin hasi dute aurtengo denboraldia Estampako mutilek

O.E.

Iazko Ligako txapelaren aurka jokatu zuen denboraldiko lehen partidua Estampaciones Intxortak. Partidua parekatua eta bizia izan zen, iazko Ligako eta Kopako txapelaren aurka aurre ziren-eta. Elgetarrek ez ziren ondo ibili, eta ez zuten duten maila erakutsi. Partidu amaieran, 36-33 adierazten zuen markagailuak, Katu Kale 1173 taldekoen alde.

DOMEKAN, BAR AZITAINEN AURKA

Asteburu honetan, Bar Azitainen aurka jokatu dute elgetarrek. Domekan izango da partidua, 11:30ean. Estampaciones Intxortan iazko jokalariek jarraitzen dute, eta aurten ere Liga eta Kopa irabazteko faboritoen artean daude. Aurreko asteko ikusita, asko hobetu beharko dute.



GORKA ARIZMENDIARRIETA

Txapelketako talderik sendoenetako dauka aurten ere Estampaciones Intxortak.



Presuen eskubidien aldeko bilkuria

Hilleko azken barikuetan egiten daben moduan, gaur be kale bilkuria egingo dabe herriko plazan, Euskal Presoak Euskal Herrira lelopian. Euskal presoek etxetik gertu bizi izateko dauken eskubidia aldarrikatuko dabe, 20:00etan, plazan batuko diran herritarrek. Datozen hillabetiotan be kale bilkurak egingo dituztela azaldu dabe antolatzailliek./O.E.

ERRETRATUZAHARRA

Bergarako
Cerrajerako
langileak, 1949

Bergarako Udal Agiritegian aurkitu dugu alboko argazkia, orain dela 53 urte inguru ateratakoa. Argazkian, Cerrajeran lanean ziharduen langile talde bat agertzen da, Labegaraietako auzotar batzuekin batera. Jaso dugun informazioaren arabera, argazkia Zabala tabernaren aurrean ateratakoa izan daiteke. Langileen topaleku zen sasoi hartan Zabala taberna. Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara:

Aurreneko ilaran: Pedro Aranburu (bizikletarekin dagoena), Luis Iparragirre, Santos Garitano, Jose Mari González, eta Juan Mari Azpiazu.

Bigarren ilaran: Inazio Mari Galarraga, Esteban Aiastui, Marcelino Ortega, Periko Aiastui, Migel Usabiaga, Juan Narváez, Ignacio Mendibil eta Juan Trueba.

Hirugarren ilaran: Abilio Pinedo, Jose Umerez, Rafael Zabala, Jose Igartza, ezezaguna, Jose Mari Zabala eta Martin Arana.

Atzean, zutik, ezkerrean dagoena



On Epifanio Abartzuza duzue. On Epifanio Labegaraietako eskolako irakasle izan zen. Eskuinaldean zutik dagoena, berriz, Gilberto Amasorrain da. Ez dugu jakiterik izan zeintzuk diren erretratuko bi mutikoak.

Argazkia: BUA (Miren Urkijo bilduma)

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Espoloiaren
itxuraldaketa
1920tik hona

Espoloiak guztiz aldatu da azken 30 urteotan. Ezkerreko argazkian ikusten den eraikina Etxaniztarren etxea zen, eta hura bota eta etxebizitzak egin zituzten 80ko hamarkadan. Bestetik, Movillako txaleta eta frontoia ere bota zituzten urte haietan. Toki Eder plazako etxeak eraikitzeko. Bestalde, Espoloiako musika kioskoa 1924. urte ingurukoa da.



≈ 1920

Irudi honetan herritar talde bat ageri da Espoloiaren paseatzen, 1920ko hamarkada hasieran (BUA, Alfonso Gallastegi bilduma).



2002

80ko hamarkada ezkerreko erabateko itxuraldaketa izan zuen Espoloiak. Lehengo eraikinen lekuan etxebizitzak eraiki zituzten.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak -
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



Udazkena·Negua
SUBIJAi
Ume eta gazte moda

OILILY • KENZO • PAMPOLINA
QUIKSILVER • LIBERTO • PETER RABBIT
TIMBERLAND • ELLE

943 76 42 41. Irizar 1

Gida Komertziala 2003, abian!

Aurten, berritasunez beteta

- Zerbitzu gehiago...
- Diseinu berria...
- Publizitate aukera handiagoak...

2003. urteko Gida Komertziala prestatzen hasi gara.
Laster pasatuko gara zure denda, enpresa edo komertziotik.

Hurrengo egunotan, **Eider Lete** publizista izango da zurean.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Eider Lete



INFORMAZIO GEHIAGO: 943 76 92 71 edo 943 71 23 91



Agirrebeña berria



- **Berritua eta handiagoa: 90 lagunendako janlekua**
- Eguneko menua, asteburuko menua eta karta
- Etxeko postreak
- Asteburuetan, mariskoa eta arraina, aldez aurretik eskatuta

“Nire taldea eta ni neu zeuen zerbitzura egongo gara aurrerantzean”. Andres Martin

AGIRREBEÑA JATETXEA

Ibarra kalea 2, Bergara. Telefono BERRIA: 943 76 21 45.